



# LEIRE OLABERRIAREN OMENEZ BAZKARIA

Larunbat honetan bazkaria egingo dute lkaztegiatan; bertakoei nahiz kanpokoei egin diete deia parte hartzeko » 4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO


# hitza



Asteazkena  
2009-04-15

VIIURTEA 1.676.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udalak esan du une egokia zela obra hauek egiteko, diru laguntzak jaso baitituzte. I. GARCIA

## PLAZA OINEZKOENTZAT JARTZEKO LANAK AMAITU DITUZTE

**ADUNA** Herriko plaza oinezko bihurtzeko bigarren zatia amaitu berri dute; herrigunea inguratzen duen errepidea ere bukatu dute »

## Argiztapenean aurrezteko neurriak hartu ditu Udalak

**IBARRA** Urtean 25.000 euro aurreztu nahi ditu; etxeetako sarbideak ere hobetu nahi dituzte »



Euskal Herria kaleko lokal bateko atek itxura hau zuen atzo. R. CALVO

## Hiru gazte atxilotuta hainbat lokaletan kalteak eragiteagatik

**IBARRA** 17 urteko bi gazte eta 16 urteko bat atzeman zituen Ertzaintzak astelehen gauean »



HITZA aste santuko argazki lehiaketa


bidali opor  
hauetako argazkiak!



1. Saria



**Aldori** landetxean  
2 pertsonentzako  
astebururako  
egonaldia



2. Saria

**Larrea**  
jaketan

**Larrea** jatetxean  
bi pertsonentzako  
otordua

3. Saria

**Gorrotxategi**ren saski berezia:  
Txokolatezko txapela, xaxu kaxa,  
teilak eta zigarratxoak, gurinezko  
pastak eta Txakolinezko bonboiak

**ARGAZKIAK  
NORA BIDALI**

◦ **P. elektronikoa:**  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
◦ **Postaz:**  
Argazki lehiaketa,  
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,  
Araba etorbidea 5 behe, atzea  
20400 TOLOSA  
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo  
Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean  
HITZAko materiala zozketatuko dugu!

# Herrigunea oinezkoentzat

**Aduna** » Herriko plaza oinezkoentzat jartzearen bigarren zatia eta herrigunearen inguruko errepidearen obrak bukatu dituzte.

IMANOL GARCIA

Bi obra garrantzitsu amaitu berri dituzte Adunan. Alde batetik herriko plaza oinezkoentzat bakarrrik bihurtzearen azken zatia bukatzea eta bestea herrigunea ingurutzuten duen errepidea bukatzea. «Aspalditik zetorren asmoa zen», azaldu du Arantxa Aburuza alkateak, «herrigunea oinezkoentzat jartzea eta autoentzako errepidea egitea bere inguruan. Plaza arintzea zen asmoa. Orain izan da une egokia eta diru laguntzak ere etorri dira horretarako».

Plaza oinezkoentzat jartzearen aurrekontua 190.000 euro ingurukoa izan da eta errepidea egitearena 310.000 euro ingurukoa. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak eman ditu diru laguntzak: 100.000 euro errepidearentzat eta 50.000 euro plazarentzat.

Azken obra hauen aurretik, herriko plazaren erdia oinezkoentzat jarri zen eta herrigunearen inguruan errepide berria egin zen udaletxearen atzeko biribilgunea arte. Hori egin eta gero plazaren erditik ezin ziren ibilgailuak pasatu. Orain obra horiei jarraipena eman zaie eta plazaren beste erdia oinezkoentzat jarri dute. Beraz, frontoia eta udaletxearen arteko zatira ezin da ibilgailuarekin sartu. Laster pibota hidrauliko bat jarriko dute, beharrezkoak diren kasuetan larrialdietarako ibilgailuak sartu ahal izateko. Udalak araudia aterako du horren inguruan.

Aburuzak azaltzen duenez, obra egitekoan «plaza itxura eman nahi izan zaio eta lorzoru ezberdina jarri da zenbait lekutan. Oztopo arkitektonikoak kendu egin dira ere». Zoru berria jartze-rakoan, udaletxetik frontoira hainbat azpiegitura sartzeko aprobetxatu dute, megafonia horien artean. Aurrera begira, Udaletik aztertzen ari dira nolako hiri-altzariak jarri plazan.

## Aparkalekuak errepidean

Herrigunea inguratzen duen errepidearen eraztuna osatzeko azkeneko zatia falta zen, hau da, sagardotegietara joateko bidegurutzetik hasi eta Uztartza aterpetxearen atzeko aldera arte. «Obrak egiteko arazoak izan dira, behar ziren lurrrak lortzeko adibidez», dio alkateak. «Tartean heriotz mehatxuak ere izan dira. Hori dena bukatu da eta obra amaitu da ere».

Errepidearen zati berria norabide bakarrean da, hau da, sagardo-

tegiatako bidegurutzetik hasi eta Uztartza aldera. Zati batean beste norabidean ere joan daiteke, eskolaren atzeraino. Hor birlaguntza txiki bat jarri dute. Eskolara haurrak eramateko Uztartza aldera atzaldetik joatea dago, beraz, eta gero buelta eman beharra dago.

Plazan zeuden aparkalekuak egun ez daude, baina orain errepidean zehar jarri dira. Guztira 32 aparkaleku berri jarri dituzte, tartean elbarrientzako direnentzat ere bai. Etxeetako eta garajeetako pasoak errespetatu dira. Bestalde, trafikoaren abiadura erregulatze-ko zeharbidetarako altxatu egin dituzte.

## Haurrentzat parke berria

Obra nagusi horiek bukatu dira eta orain eskola ondoan haurrentzako parke berri bat egiten ari dira. Espainiako Gobernuak udalei eman dizkien laguntzak baliatu dituzte horretarako. 50.000 euro inguruko diru laguntza erabiliko da obra egiteko. Horrekin parkearen urbanizazioa egingo da, hau da, petril bat jarri parkea mugatuz, lurra eta argiztapena jarri eta zuhaitz baten ingurua prestatu.

Dagoeneko obrekin hasi dira. Aurrerago parkearen jolasak jarriko dituzte. Eskola handitzeko proiektua dago eta egun eskolaren ondoan dagoen parkearen aldera egingo litzateke zabaltzea. Horri begira egiten ari dira orain parke berria.



Herriko plazaren bigarren zatia oinezkoentzat jarri dute; argazkian, zati berria udaletxetik ikusita. I. GARCIA



Aurretik herriko plazaren beste erdia dagoeneko oinezkoentzat jarrita zegoen; orain plaza guztia jarri dute horrela. I.G.



Herrigunea inguratzen duen errepidearen zati bat eta parke berriaren obrak egiten. I. GARCIA

## Z Zurea da hitza info

### Leaburu-Txarama eta Larresoko lagunak

Urteroko moduan anaitasun ekin-tzako Lapurdi Ote Lore elkarteak lagunekin igandean elkartu ginen Leaburu-Txaraman. Ongi etorri xume baten ondoren, bi herrien arteko toka txapelketa burutu genuen, irabazlea Leaburu Jose Antonio Arreseigoren izan zen eta sari bezala urdaiazpiko bikaina jaso zuen.

Segidan herriko Otazu sagardotegira joan ginen bazkaltzera, tripa ondo bete eta aurten go sagardo ederrarekin ez tarria bustiaz, eskal kantua zaharrak abestuz, giro paregabeaz gozatu ahal izan genuen.

Urtero bezala elkarrekin argazkia atera eta uztailearen 26an Larresoren ospatuko den Ote Lore elkartearen 25. urteurreneko festan parte hartzeko asmoa azaldu genuen. Besterik gabe herritar guztiak gonbidatuta zaudete.

**Nagore.**

### Larunbatean (hilak 4) sagardotegira

Larunbat honetan (apirilak 4) Artubi elkarteak antolatuta Bedaiotarrak hitzordua dute sagardotegira joateko. Eguerdiko ordu batean hartuko dute autobusa Bedaioko plazan eta ordu laurden beranduago Alegiko kikara aurrean nahiago duenarentzat. Ordubiak aldera iritsiko dira Astigarragako Bereziar-tza sagardotegira...

#### Bedaiotik.

■ **Koxme.** «Tolosar kalekume baten galdera da hau: Bedaiora aste-buruan eguerdi edo arratsalde-pasa joanez gero, ba al dago tabernarik? Zuen elkartearen zer bait hartu al dezake bazkide ez denak? (Ordainduta, alegia...) Eskerrik asko».

■ **Bedaiotik Koxmeri.** «Kaixo Koxme! Ez oraindik ez dago tabernarik Bedaion, zuk tolosar kalekume bezala diozu, baina nik bedaiotar arunt bezala ere nahiko nuke zer bait hartzeko tabernatxo bat... eta

jolasparke egoki bat ere urmeentzako, baina oraindik ez dira iritxi. Hala ere, ziur laster izango ditugula, esperantza eta ilusioa ez ditugu behintzat galtzen, baina badakizu, «las cosas de palacio van despacio».

Bedaiotik eskertzen dira Bedaiotik kanpokoek egindako eskakizunak, ea *los de palacio* konturatzen diren eskatzen dugunak baduela garrantzia.

Bestalde, noski Artubi elkartearen irekita egongo balitz bertara hurbildu eta edatekorik emango dizugula, inongo dudarik ez daukat. Ez zinateke lehenengo izango. Nere aldetik, animo eta tabernarik ez izatea ez dadila izan aitzakia Bedaiotik ez disfrutatzen. Urtean zehar Artubi elkarteak hainbat ekin-tza antolatzen ditu (asteburu kulturala, mendi irteerak...) edonorentzako irekiak direnak eta urmeekin ere parte hartu dezaketena, ikusteko, ondorengo eskuliburu txikia. Besterik gabe, eskerrik asko».



Zaldibiko emanaldian parte hartu zuten gaztetxoak. HITZA

## Alurr hasia da udaberriko saioekin

**Ibarra** » Zarautzen eta Zaldibian eskaini berri dituzte emanaldiak; hurrengo hilean, Senperen eta Ibarren ariko dira.

Emanaldiak arrakasta handia izan zuela azaldu dute taldetik, «ikus-entzule gehienek ez baitzuzten ezagutzen Alurrek egiten dituen berrikuntzak, beti ere eskal dantzetan oinarriturik».

Hilaren 4an, Zaldibian, Dantzari Txiki Egunaren bezperan, aritu ziren. Alurrek dantza eskolak ematen ditu Zaldibian, eta horko dantzari gazteek egiten duten lana erakusteko, Zaldibiko Guraso Elkarteak dantzaldia antolatu zuen. Guztira, 10-15 urte bitarteko 100 dantzari baino gehiago aritu ziren bertan: Ibarrik 85 gazte lau talde-tan banatuta, Altxotik talde bat, eta Zaldibiko taldea. «Ordu beteko emanaldia izan zen, oso aberatsa, dantza tradizionalak eta koreografiak ere egin zituztelako».

Alurreko dantzari gazteek txalo beroak jaso zituztela aipatu dute taldeko ordezkariak: «harrobia badagoela argi geratu zen, eta gainera, Arin-arina, Banako agurra eta Kaxarranka. Dantza gehienak koreografiatuta izan ziren».

#### ERREDAKZIOA

Alurr Dantza Taldea jadanik hasi da udaberriko denboraldiko emanaldiekin. Hilaren 3an Zarautzen aritu zen, hilaren 4an Zaldibian, eta hurrengo bi emanaldiak maiatzean izango dira: maiatzaren 10ean Senperen (Lapurdi), Herri Urrats jaian, eta maiatzaren 23an etxean, Ibarren, Dantzari Txiki eta Alurr Egunean.

Hilaren 3an, Zarauzko Munioako karpan izan zen emanaldia, Murkil Zarauzko Dendarien Elkarteak antolatuta. Alurr taldeko 12 dantzari 25 minutuko saioa egin zuten, dantza hauekin: Fandangoa, Arin-arina, Banako agurra eta Kaxarranka. Dantza gehienak koreografiatuta izan ziren.



Leaburuako Lapurdi Ote Lore elkarteak kideekin batera. HITZA

## H Hilberriak, urteurrenak eta eskertzak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

### ANDRES ITURRIOZ BALDA

Joan zinela jakindakoan gelditu ginen samirrez, hasieratik izan bait zera gure lagun, gure babes, zauden tokian zaudela ere gogoan zaitugu zinez, eskerrikasko bihotz-bihotzez eta laister arte Andres.

**Alegiako Dantzari Txiki Taldea**



**ALEGIA**  
2009ko  
apirilaren 15a

### JULIANA URDAMPILLETA URANGA

ANDREA  
(Marcelino Larrarte Rezolaren alarguna)

-Goian bego-

Izaskungo lorea alaitasun eta goxotasunez bete hain erraza izan da zu maitatzea. Ez zaitugu inoiz ahaztuko Arnoña.

Zure bilobak: Arantzi, Ixaskun, Iñaki eta Mikel, Leire, Aitor eta Ainara, Ana eta Xabier, Joseba eta Eneko, Iñigo eta Amaia, eta Jokin.  
Birlobak: Aimar, Mireia, Izaro, Unai, Olaia, Unax.

**IBARRA**  
2009ko  
apirilaren 15a

### ANDRES ITURRIOZ BALDA

JAUNA  
-Goian bego-



**Alitzoko Imaz bertsolaria eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak**



**ALITZO**  
2009ko  
apirilaren 15a

### ANDRES ITURRIOZ BALDA



Eskerrik asko lagun. Gogoan izango haugu.



**ALEGIA**  
2009ko  
apirilaren 15a

### Eskertza

#### JAVIER SARASA AMEZTOY

Familiakoek musika doinuen artean agurra ematen lagundu zeniguten guztioi eskertzen dizuegu.



**ATALLU**, 2009ko apirilaren 15a





Olinpiar Jokoetatik bueltan ere herriak omenaldia egin zion Olaberriari. HITZA

## Leire Olaberriaren omenezko herri bazkaria egingo dute larunbatean

**Ikaztegieta** » Herriko plazan izango da eta txartelak erosteko aukera gaur izango da, Ostatuan eta Toki-Alai tabernan.

### ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, Ikaztegieta Festa Batzordeak antolatuta eta Ikaztegieta herriaren izenean, Leire Olaberri pista txirrindulari herriarra omenaldia bertako plazan. Kasu honetan, herri bazkarian izango da Leire Olaberri.

«Leirek azkenaldian hainbat sari, garaikur eta ohore jaso du batez ere Olinpiar Jokoetan eginiko lana dela eta». Aldi berean, «Ikaztegieta herria ere komunikabide desberdinetan maiz aipatu izan da. Guk modu berezi honetan eskertu nahiko genioke bere kirri ibilbidea, nahiz gurea beste zenbait omenaldirekin alderatuta xumea izan».

Beraz, «dei egiten dizuegu guztioi, ikaztegieta nahiz kanpoko, Leire Olaberriaren omenez antolatutako herri bazkarian parte hartzea». Txartelak Ikaztegieta-

ko Ostatuan eta Toki-Alai tabernan izango dira, 20 euroren truke. Eskuratzeko azken eguna gaur da, 19:00ak arte.

«Animatu eta etor zaitezte Ikaztegieta herriaren izena hain altu utzi duen Leirearen omenaldi honetara». Ez diragainera, sorpresak faltako. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian izango da 14:00etan hasiko den bazkaria.

### Munduko Txapelketatik etorri berria

Leire Olaberri Polonian izan da azken egun hauetan, Munduko Txapelketako probak egiten. Cespa-Euskadiko txirrindulariak ez ditu nahi zituen emaitzak lortu, baina lortu dituenek ere merezi dute gogoratzea eta noski, omen-tzea.

Olaberri «oso ondo» hasi zen Polonian. Jazarpenean 9. egin zuen, Espainiako marka berri onena ezarri gainera. Scratch-en erori egin zen, min handirik hartu gabe hala ere, eta proba 18. bukatu zuen; Hobekien menperatzen duen proban, puntuazioan, hain juxtu, «bikain» hasi zen, baina gero beheraka hasi zen, 7. bukatuz. Ikaztegieta-arentzat ez zen emai-

### » DATUAK

- **Ekitaldia.** Leire Olaberri txirrindulariaren omenezko herri bazkaria.
- **Eguna.** Hilaren 18an, larunbata.
- **Ordua.** 14:00etan.
- **Lekua.** Ikaztegieta herriko plazan. Euria eginez gero kiroldegian.
- **Prezioa.** 20 euro.
- **Txartelak.** Ostatuan eta Toki Alaietan, gaur 19:00ak arte.

tza ona izan. Proba honetan bere aurkari batzuk erori egin ziren eta ia bere ere lurrera jausi zen hauen ondorioz. «Gertaera honekin baliteke Olaberri proban blokeatu izana eta horrela 7. bukatu izana».

Cespa-Euskadi taldeko beste txirrindulari gazteak, Ana Usabagak taldekakoan 14. egin zuen, egindakoa eginda ere bere helburua lortuz: Polonian aritzea, esperientzia hartzeko, hain zuzen ere.

Cespa-Euskadi pista txirrindularitzako taldea «oso pozik» dago denboraldian lortutako emaitzekin: Pekingo Olinpiar Jokoetan brontzea eskuratu zuen, Munduko Kopetan urrezkoa, lau zilar eta lidertzak, nazioartean aritu dira...



I. Nafarri Rallyesprintan, Abaltzisketatik Amezketara jaistear. N. URBIZU

## Rallyesprintaren aurreko probak, asteburu honetan

### ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak, datorren hilaren 25ean Irurako Ikastolaren aldeko II. Nafarri Rallyesprinta dela eta, «segurtasun neurriak direla eta eta derrigorrezkoa izanik, hainbat errepede mozketak egingo dituzte».

Rallyak Alegian izango du irteera, Orendaindik eta Abaltzisketatik pasako da eta Amezketako jaitsieran izango du helmuga. Hori dela eta, Alegiatik Orendainerako eta Abaltzisketarako GI-3670 eta Amezketatik Abaltzisketarako GI-2133 errepedeak ibilgailuentzat moztu egingo dira. Arratsaldean, 14:00etatik proba bukatu arte, 19:00ak aldera arte, beraz, moztuko da. Egun horretan eta orduarte horretan, beraz, ibilgailurik ezingo da erabili errepede zati horretan behintzat.

### Errekonozimendu saioak

Bestalde, gogoratu nahi izan dute, errepedearen errekonozimendu saioak larunbat honetan (hilak 18), igandean eta proba bezperan (hilak 24 ostiralez), egingo direla 09:00etatik 17:00ak bitartean. Errekonozimendu probak ibilgailu normalarekin egiten dira, ez lasterketako autoekin eta legez ezarritako daogean abiadura gainditu gabe; «Hitz batean, egunero ibili behar den eran. Ohiko egun batean baino trafiko gehiago nabaritu daiteke egun horietan, besterik ez».

Bukatzeko, sarrera salmentari 09:00etan ekingo zaio. Horregatik, 09:00etatik 14:00etara, autoa edo bestelako ibilgailua ahalik eta gutxien mugitzea eskatu dute. Horrez gain, egun horretan antolatzaileen gomendioak errespetatzea eskatzen da.

## Laburrak

### Marivi Alkizaren paisaia eta erretratoak ikusgai

**ALEGIA** » Hilabete osoan zehar Alegiako jubilatuaren tabernan Marivi Alkizaren margolan erakusketa izango da. Oleo teknika erabili du eta gehienbat paisaia jorratu ditu, asko ingurukoak (Ikaztegieta, Gaztelu)... Erretratoak ere landu ditu.

### Intxurre futbol taldearen txartelak tabernatan salgai

**ALEGIA** » Intxurre KKE futbol taldeak txartelak ditu salgai euro t'erdiren truke. Sari handia zozkatuko dute. Hauek Alegiako tabernatan eskura daitezke eta saria nork irabazi duen uztailaren 24an jakingo da. ONCEn zenbaki saridunak dituenarentzat izango da guztia.



HITZAK harpidedunentzat **sarrera parea** du

### Bruesa GBC - MMT Estudiantes

Donostiako Illunben  
Apirilak 19 • Igandea  
18:00etan



sarrerak eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak Apirilaren 17ko egunkarian.



sarrerak

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €





# Argiztapenean aurrezteko eta etxeetako sarbidea hobetzeko neurriak adostu dituzte

**Ibarra** » Urtean argiztapeneko 25.000 euro aurreztuko ditu Udalak eta 112 tona CO2 gutxiago isuriko ditu.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak udalerriko argiztapen publikoko instalazioek eragiten eta sortzen duten argi-kutsadura murriztu ahal izateko neurriak hartu ditu.

Horiek horrela, zerbitzu honetara bideratzen den gastu publikoa «nabarmenki» gutxituko dutela esan dute. Azken helburua, 112 tona CO2 gutxiago isurtzea da eta baita urtean 25.000 euro aurreztearene. Udalak, Aranzadi eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) laguntzarekin diseinatu du plana.

Udalak argitutakoaren arabera, ikuskapen bat eskatu zuen iaz «Ibarran argiztapen publikoaren egoera zein zen jakiteko eta zerbitzu honek eragindako kutsadura

eta Udal gastua murrizteko zein neurri hartu beharko lirakeen ezagutzeko». Ondorioak eta helburuak lortzeko proposamen nagusiak joan den urte bukaeran jaso zituen Udalak.

## Argindarraren murrizketa

Egiten hasi diren lehen ekintzetako bat argindarra murrizteko «fluxu erreduktoreen instalazioa» da. Hauei esker, «eguneko zenbait ordutan argiaren potentzia gutxitu egingo da une horretako beharre-

## Zenbait orduetan argiaren potentzia gutxituko dute fluxu erreduktoreei esker

tara egokituz. Hala, energia aurrezten da eta, era berean, ibarraren artean argiak sortzen duen inpaktua gutxitzen da», argitu du Udalak. Udalaren aldetik martxan ipini den beste ekimenetako bat

udalerriko farolen aldaketa da. Gaur egungoak ordezkatu egingo dituzte, izan ere orain dauden farolek argia gorantz proiektatzen dute eta berriekin «argia beharrezkoa den eremuetan biltzea» lortuko dute.

Ekimen honek 230.000 euroko aurrekontua du eta honen eraginez, 25.000 euro aurreztuko ditu Udalak. «Gastu publikoa urteko 40.000 eurokoa izango da gaur egungo 65.000 eurokoa beharrenean», esan du Udalak zentzu honetan. Gainera, «CO2 isuria egungo 253 tonatik 141 tonatara murriztuko da, Aranzadi Zientzia Elkarrekin ikuskapenean eginko kalkuluen arabera», gaineratu du.

## Etxeetarako sarbideak hobetu

Bestalde, Ibarrako Udalak etxebizitzetara sarbidea errazteko aurriskutako lanak egiterakoan indarrean egongo den araua finkatzeko ordenantza adostu du orain gutxi. «Dokumentu honek orain arte hutsik aurkitzen zen prozeduraren

erregulaztea dakar», esan du zentzu honetan Udalak.

Ibarrako alkatea den Txelo Romeok esan duenaren arabera, «udalerriko bizilagunen kontsultak jaso dira euren blokeetan irigarritasuna bermatzeko obrak egiteko asmoarekin eta ez zegoen kontsulta horiek erantzun gaituzkeen arautegirik». Ordenantza honen onarpenarekin, «ibarraren artean nahiko hedatua zegoen eskaera bati irtenbidea eman diogu».

Arauk finkatzen dituen baldin-

## Etxean ezintasunen bat duen pertsona dutenek sarbidea hobetzeko eskaera egin dezakete

tza ezberdinen artean, Romeok garrantzitsuenak azpimarratu ditu, horien artean, moldatzen diren higiezinak etxebizitza erabilera izan behar duela nagusiki, nahiz eta bere barnean izaera gehigarria

duen beste erabilera batzuk ere izan ditzakeen.

Sarbidea hobetzeko lan hauek, gainera, etxebizitzetako batean ezintasunen bat duen pertsona da goela legalki frogatuta egin ahal izango dira edota pertsonetako batek 65 urte baino gehiago baditu. Era berean, pertsona hauek Ibarran erroldatuta egon behar dute eta ordenantza arabera, «etxebizitza horretan bertan bizi ohi dela frogatu beharko du», esan du Romeok.

Etxebizitzetako sarbidea hobetzeko lanak arautzen dituen ordenantza, gainera, obrak egin ahal izateko bete behar diren baldintza legal guztiak jasotzen ditu «orain arteko hutsune legala ezabatzeko helburuarekin».

Araudi honen onarpenarekin, Ibarrako Udalaren nahia, «udalerriko bizilagun guztiak euren etxebizitzetara arazorik gabe iritsi ahal izateko duten eskubidea bermatzea da, igogailuen ezarpena barne», argitu du.

Era berean, dokumentu honek lokalen jabeen eskubidea babesten du, desjabetze kasuetako arrazoiak behar bezala frogatuta egoteko eta bidezko ordainsaria jaso ahal izateko.



## Bilboko Athleticeko jarraitzaileak

**TOLOSA** » Bilboko Athleticeko jarraitzaile tolosarrak Bilbora urtero egiten duten bisita egin zuten pasa den astean. Reson Piriri elkarteak 45 bat kide joan ziren Bizkaia eguna bertan igarotzera, tartean musikari ugari, eta Bilboko kaleetan zehar Tolosako Inauterietako doinuak ere jo zituzten. Poteatu eta gero hiruburuan bazkaldu zuten eta ondoren Bilboko Athleticeko partida ere ikusi zuten San Mamesen. HITZA

## Kalteak eragin dituzte hainbat denda eta lokaletan

**Ibarra** » Hiru gazte atxilotu ditu Ertzaintzak Euskal Herria kaleko lokal eta denda batzuetako atek eta sarrailak kaltetzeagatik.

## ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak atzo azaldukoaren arabera, 17 urteko bi gazte eta 16 urteko beste gazte bat atxilotu ditu Ertzaintzak Ibarrako Euskal Herria kaleko hainbat denda eta lokaletan kalte desberdinak eragiteagatik.

Astelehen eta astearte arteko gauean atxilotu zituzten gazteak eta jabetzaren aurkako kalteak eragitea egotzen dietela ere argitu du Herrizaingo Sailak.



Euskal Herria kaleko lau lokaletako sarrailak eta atek kaltetu dituzte. R.CALVO

## Bizilagun baten salaketa

Ertzaintzak esandakoaren arabera, goizaldeko hirurutan atzeman zituzten hiru gazteak pertsona batek egindako salaketaren ondotik.

Pertsona honek bere dendan kalteak eragiten ari zirela salatze-ko deitu zuen Ertzaintzara.

Polizia, orduan, Euskal Herria kalera gerturatu zen eta bertan denda horretaz gain, beste denda bateko atea eta sarraila kaltetuak zeudela ikusi zuten. Era berean, kale bereko beste lau lokaletako sarrailak eta atek kaltetu zituztela ikusi ahal izan zuen Ertzaintzak.

**KEY-LAN**  
Sarraitzetza  
Nafarroa etorb. 11 beheko - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./fax: 943 65 03 13

@ **Argazki Lehiaketa.** Azken urteetan bezala TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK IX. Argazki Lehiaketa antolatuta du. Argazkiak jasotzen goazen heinean webgunean ere ikusi ahal izango dituzu Irudietan atalean.  
[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





2006. urteko euriteek nahasmena sortu dute azken aste hauetan. JAIONE ASTIBIA

## Azpiegituretarako diru laguntzak eta lanak orainaldian ala iraganean?

**Leitza** » 2006an «egindako lanak» 2009ko proiektuetan agertu dira nahasmena sortu duen aferean.

### ASIER IMAZ

2006ko martxoaren 11n metro karratuko 96 litro euri egin zuen Leitza. Egun hartan euri kolektorea kalteturik gelditu zen. Berria jartzeko helburuarekin, Nafarroako Gobernuak 42.267 euroko diru laguntza onartu du.

Hori aipatzen du behintzat Toki

Administrazio Departamenduen web orrian, [www.navarra.es](http://www.navarra.es), gaztelerazko albisteetan.

Leitzako Udalaren esanetan, euri kolektorea 2006. urtean konpondu zuten eta ez dakite orain albiste hau zergatik irten den.

### Gobernuaren prentsa oharra

Hainbat komunikabidek zabaldu duten berriaren iturria Nafarroako Gobernuaren web orria da. Bertan, lehen aipatutako helbidean, agertzen da albiste, 2009ko apirilaren 1eko datarekin. Prentsa oharra zabaltean 2009ko martxoaren 1a jartzen du.

Idatziazen arabera, Amelia Salanueva kontseilariak, Nafarroako II herritan azpiegitura lanak egiteko 1.193.944 euroko laguntzari argi berdea eman zion. Horien artean Leitza. Hemen egingo diren lanak ondoren zehazten ditu Tokiko Administrazioaren Departamenduenak: «Leitza: Uraren kolektorea berrituko du. 2006ko azaroan izandako euriteak kalteak...».

Ondoren, Departamenduen Azpiegitura Planaren arabera Leitzak 42.267 euroko diru laguntza jasoko duela aipatzen du idatziak. Lan hauen kostua aldiz 62.703 eurokoa izango omen da.



## Aparkatzeko lekua jadanik prest

**LEITZA** » Estazioan konponketa lanak aurrera doaz. Eraikuntza zaharrak arpegi berria dauka jada eta ingurunean oraindik lanak ez dira amaitu. Aparkaleku eremu zabalak amaitzeko aurkitzen den arren, jadanik ga-

lipota marra zurien zain dago. Plazaolako bidea amaitzeko edota hasteko puntu egokia da Leitzako Estazioa eta berrikuntza lan hauekin gero eta gune garrantzitsuagoa izango da. A. IMAZ



Turismoaren alorrean 'Nafarroako Erresuma' saria jaso du Partzuergoak. HITZA

## Plazaola Partzuergo Turistikoak saria jasoko du maiatzean

**Turismoa** » Partzuergotik bulegoaren ordutegi berria zabaldu dute, maiatzean egingo dituzten hainbat ekimenekin batera.

### A. IMAZ

Plazaola Partzuergo Turistikotik apirilean eta maiatzean antolatutako dituzten egitasmo eta aldaketek berri eman dute.

### Turismo Bulegoko ordutegia

Lehenik eta behin Turismo Bulegoko ordutegi berriaren nondik norakoak zabaldu ditu Partzuergoak. Urte guztiko ordutegia [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) helbidean aurkitzen da. Apirila, maiatza eta ekaina aipatzearen, bulegoa 10:00etatik 17:00etara egongo da zabalik. Larunbatetan eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Azkenik, maiatzaren 1ean eta 2an astebu-

ruetako ordutegiaz gain, 16:00etatik 19:00etara ere zabalik edukiko dute Turismo Bulegoa.

### 'Nafarroako Erresuma' saria

Partzuergo Turistikotik jakinarazi dutenez, *Nafarroako Erresuma Turismo Saria* jaso berri dute. Herri Entitateak, Partzuergo Turistikoak edo Institutio Publikoen atalean lortu dute Nafarroako Turismo Kontseiluak emandako saria. Maiatzaren 6ean antolatuko duten ekitaldian jasoko dute saria.

### Natur Bideen Eguna eta Txirrindula Martxa

Azkenik, maiatzaren baitan egingo dituzten bi ekimenen berri eman dute Partzuergo Turistikotik, nahiz eta azaleko aipamenak izan. Gauzak horrela, maiatzaren 3an Natur Bideen Eguna ospatuko dute eta hilaren 24ean 50 kilometroko Bizikleta Martxa egitea aurrerikusten dute.

## Aste Santuetan ere Leitzako gazteak pilotan

### A. IMAZ

Azken asteburu luzean ohi baina pilota partida gutxiago izan arren, leitzarrek ez zuten atsedetik hartu. Aurrerako gazteak Irurtzunen aritu ziren. Elgetan berriz, hilaren 5ean, Jaunarenak 22 eta 2 irabazi

zion Etxeberriari. Irurtzungo Txapelketari dagokionez, Mitxa eta Barberenak 4 eta 18 galdu zuten hilaren 10ean. Egun eta txapelketa berean, Jaunarena-Hernandorenak 6-18 galdu zuten euren partida.

**@ Zurea da Hitza.** Sartu gure web orrian *Zurea da Hitza* atalean eta idatzi zure albiste, kritika, ... Horretaz gain, zure albisteak idazteaz gain, irakurleek idatzi dutena ikusteko aukera eskaintzen dizu gure web orriko atal honek. Bertan agertzen denaren inguruko iritzia idatzi nahi izanez gero, *erantzunak* atalean sartu eta idatzi zure gogoeta:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserrí bat edo borda bat hartuko gure alokairuan Tolosaldean edo Leitzaldean. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.



13°  
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Hariitze jubilatuen elkar-  
teak Gironara bidaiara antolatuta du  
ekainaren 15era. 391 euro  
bazkideek eta 397 ez bazkideek.  
Izena elkartean bertan eman dai-  
teke.
- **Villabona.** Behorlegi (1.265 m)-  
Auski-Ihatea (1.286 m)-Altzürükü  
(Zuberoa) mendi irteera antolatuta  
du Aizkardi mendi elkar-teak hila-  
ren 19rako. 649 717182 zenbakian  
edo [aizkardi@aizkardi.com](mailto:aizkardi@aizkardi.com) helbi-  
dean eman daiteke izena.
- **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako  
graduatu titulua lortzeko proba li-  
break aurki Tolosan. Izen-ematea  
Tolosako HHIn eman beharko da  
izena, eta azterketa maiatzaren  
20an izango da, EPAn bertan.

### Erakusketa

- **Alegia.** Jubilatuen tabernan Al-  
kiza ahizpen margolan erakusketa.  
Oleo teknika erabili dute eta  
gehienbat paisaiak jorratu dituzte.
- **Hernialde.** Urte Batz bilbotarra-  
ren keramika lanen erakusketa  
Hernialdeko ostatuan.
- **Tolosa.** El Roto komikariaren  
*Agua tinta* erakusketa Aranburu  
Jauregian, Tolosa Naturaldia jar-  
dunaldien barruan.
- **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista  
tolosarraren *Kaleidoskopia+12'*  
erakusketa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Itziar Albisua zumarra-  
gatarraren olio-lan eta collage-ak  
Itaie tabernan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK


- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin  
Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea,  
7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkariaren adierazitako esaneri  
eta iritzien erantzunik.

### HONDARRIBIA

Tolosako Paula Gonzalez Euskal Herriko herri desberdinak bisitatu ditu  
pasa berri diren jai egunetan eta hauxe kontatu digu argazkiarekin bate-  
ra: «Aurtengoan hemen inguruan geratu gara eta herri desberdinetan  
egin ditugu egun pasak. Horietako bat Hondarribia izan da, herri ederra  
benetan, eta bertan hartutako irudia bidaltzen dizuet. Portuan izan ginen  
lehenengo, arrantzale artean, eta handik hondartza inguratuta iritsi ginen  
alde zaharrera, kale estuetan gora eta behera ibiltzera. Etxe eta txoko be-  
netan politikak dituzte Hondarribian».

PAULA GONZALEZ



### SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPALEKUAK

Argazki Lehiaketan ohiko bilakatu dira saharar errefuxiatuen kanpale-  
kuetako argazkiak, eta oraingoan ere ezin zuten hutsik egin. Kasu hone-  
tan Naiarak bidali digu irudia, eta ondorengo kontatu digu: «Aste Santu  
honetan ere errefuxiatuen kanpalekuan izan gara familia bisitatzeko.  
Egun politikak igaro ditugu bertan, berezia baita urtebetere ostean hango  
familia berri ere ikustea, gainera, aurretik bi kide berri genituen, Moha-  
med Fadel eta Hamada. Gainerakoan, guztiak ia berdin jarraitzen duela  
han esan daiteke, zaila baita desertuko lur zailtan aurrera egitea».

NAIARA LOPEZ



## Hasi da IX. HITZA Argazki Lehiaketa

TOLOSALDEA-LEITZALDEA • Aste Santuko oporraldia igaro da, gehienontzat  
behintzat, eta ohiko moduan HITZA Argazki Lehiaketari ekiteko unea iri-  
tsi da. Apirilaren 30era arte dute irakurleek oporretako argazkiak bidal-  
tzeko aukera. [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) helbidera, edota HITZA-

ren egoitzetara (Tolosakoa edota Leizakoa) eramanez edo bidaliz. Oso  
erraza da, beraz, eta gainera, sari politikak eskuratzeko aukera dago: ira-  
bazleak Aldori landetxean egonaldia, Urdaibain, bigarrenak Larrea jate-  
txean bazkaria edo afaria eta hirugarrenak Gorrotxategiko saski berezia.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Esther eta Kexus.** Atzo ezkondu  
eta gaur bazkalduko al deu?  
Parkeko lagunak.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko  
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak